



**REBEKA UBERA ARANZETA ANDREAK, EH BILDU TALDEKO LEGEBILTZARKIDEAK, SOPELAKO HEZKUNTZA ESKAINTZARI BURUZ HEZKUNTZA SAILBURUARI EGIN DION GALDERARI EMANDAKO ERANTZUNA. 11/10/05/03/01699.**

**"IES Sopelana BHI" izeneko "eraikin berriari" dagokionean:**

- 1.- Zein da aurreikusitako diru-zenbatekoa?**
- 2.- Zein da Hezkuntza Sailaren lehentasuna Sopelan batxilergoa eman ahal izateko, hezkuntzaren kalitatearen ikuspegitik: egungo Iberreko Institutua handitu Abaro sektorean edo beste institutu berri bat eraiki beste lurzail batean?**
- 3.- Azken aukera horren kasuan, non hobetsiko luke Hezkuntza Sailak beste zentro bat eraikitzea, ikuspegi pedagogiko batetik: Sopelako herrian bertan edo kostaldeko naturgune batean kokatzen den San Andreseko landetan, Sopelako erdigunetik kanpo?**

**"Zipiriñe" Eskola Publikoari dagokionean:**

- 4.- Zelan baloratzen du Hezkuntza Sailak balizko irtenbide hori maila pedagogikoan?**
- 5.- Zehazki, eskolaren masifikazio arazoak konponduko lituzke irtenbide horrek ala kaltegarria litzateke pedagogikoki zentro masifikatu bat are handiagoa bihurtzea?**
- 6.- Zein da Hezkuntza Sailaren ustez Sopelako Zipiriñeko Eskolaren espazio arazoak konpontzeko irtenbiderik egokiena?**
- 7.- Zergatik ez du bere Azpiegituren Planean txertatu?**

2019-2023 aldirako azpiegitura-planak egungo Sopela BHIa handitzeko beharrezkoak diren jarduketak aurreikusten ditu. Horretarako, ikastetxea dagoen lekuan bertan handitu egingo da edo bestela eraikin berria egingo da, Sopelako Udalaren prestasunaren arabera, orubea lagatzeari dagokionez. Beraz, une honetan jarduketa zehaztu gabe egoteak zenbateko bat ematea eragozten du.

Edonola ere, Sailaren lehentasuna da ahalik eta arinen erantzutea Sopelako hezkuntza-komunitatearen beharrezkoen eta hezkuntza-instalazioen kalitatea bermatzea. Hartuko den erabakia, ordea, ez da izango lehentasunei buruzkoa, behar bezalako aholkularitza teknikoarekin jorratuko diren kontuei buruzkoa baino.

Zipiriñe HLHLari dagokionez, ikastetxe horri eragin diezaiokeen bilakaera demografikoa aztertzen ari da Saila, bai eta horren arabera jarduteko eremu desberdinak erabiltzeko beharrezkoak ere.

**Zertan da Sopelako ikastetxe berriaren proiektua?**

Azpiegitura-planak aurreikusten du, 2019-2023 aldirako jasotako jarduketan artean, Sopelako udalerrria beharrezkoa den azpiegituraz hornitzea institutuaren egungo zuzkidurak hobetu ahal izateko. Helburu horri begira, Sopelako Udalarekin harremanetan ari da Saila, eraikin berria egiteko orube egokia lortzeko.

**¿En qué situación se encuentra el proyecto del nuevo edificio educativo en Sopela?**

El Plan de Infraestructuras contempla entre las actuaciones previstas para el periodo 2019-2023 la de dotar al municipio de Sopela de la infraestructura necesaria que mejore las actuales dotaciones del Instituto. A tal fin el Departamento se encuentra en contactos con el Ayuntamiento de Sopela para obtener el solar adecuado para la construcción del nuevo edificio.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 16a  
Vitoria-Gasteiz, 16 de septiembre de 2019